| OHIKO OSOKO BILKURA / PLENO ORDINARIO<br><br>2022KO URTARRILAREN 31 / 31 DE ENERO DE 2022 | |
|---|---|
| **BERTARATUAK / ASISTENTES** | |
| **IDAZKARI NAGUSIA / SECRETARIO GENERAL**<br><br>D. Juan Agustín Villafranca Bellido jauna | **ALKATEA / ALCALDE**<br><br>D. Jon Iraola Iriondo jauna PSE-EE (PSOE).<br><br>**ALKATEORDEAK / TENIENTES DE ALCALDE**<br><br>D. Alberto Albistegui Zamacola jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Ana Telleria Echeverria andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna PSE-EE (PSOE).<br>D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna PSE-EE (PSOE).<br>Dña. María Isabel Larrauri Arriaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Ander Curiel Ayuso PSE-EE (PSOE).<br><br>**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES**<br><br>Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea PSE-EE (PSOE).<br>Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea PSE-EE (PSOE).<br>D. Josu Mendicute Rodríguez jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Alberto de la Hoz Gorriti (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Mercedes Garate Larrañaga andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Mª Elena Ibañez Anucibay andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Jon Pérez Illana jauna (EIBARKO EAJ-PNV).<br>Dña. Amaia Albizu Llubia andrea (EIBARKO EAJ-PNV).<br>D. Gorka Errasti Bernedo jauna (EH BILDU).<br>Dña. Miren Baranguan Yarza andrea (EH BILDU).<br>D. José Ángel Gimare Escolar jauna (EH BILDU).<br>Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea (EH BILDU).<br>Dña. Mª Isabel Fernández Pejenaute andrea (ELKARREKIN EIBAR-PODEMOS / EZKER ANITZA – IU/ EQUO BERDEAK). |

**Akta hau osoko bilkuraren grabazioarekin osatzen da. URL honen bidez eskura daiteke grabazioa:**

**La presente Acta se completa con la grabación del Pleno a la que se puede acceder a través de la siguiente URL:**

http://eibar.videoacta.es?pleno=20220131&instante=130

**Eibarko hirian, 2022ko urtarrilaren 31n, arratsaldeko zazpiak izanik, Udal Osoko bilkuraren ohiko bilera egin zen**, bideokonferentzia bidez; goian aipaturiko jaun-andreek osatua; Igone Lamarain Cobo andreak bere ezin etorria justifikatu du.

**En la Casa Consistorial, a 31 de enero de 2022 y siendo las diecinueve horas, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal**, por videoconferencia, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as; habiendo justificado su ausencia Dña. Igone Lamarain Cobo.

**Alkatea-Udalburu jaunak** bilerari hasiera eman dio eta aztertu da honako

El **Sr. Alcalde-Presidente** declara abierta la sesión y se procede a tratar el siguiente

## GAI-ZERRENDA

## ORDEN DEL DÍA

**1. Udalbatzak 2021eko abenduaren 27an egindako bilkurari dagokion akta-zirriborroa onartzea.**

2021eko abenduaren 27ko osoko bilkurari dagokion akta bozkatu ondoren, onartu egin da.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

**1. Aprobación del borrador de acta correspondiente a 27 de diciembre de 2021.**

Sometido a votación el borrador de acta correspondiente a la sesión de 27 de diciembre de 2021, queda aprobada.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 15 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6).

KONTRAKO BOTOAK: (0).
ABSTENTZIOAK: 5 - EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Alkatetzak emandako ebazpenen kontu-ematea.**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Araudiari buruzko azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 234. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, **Alkate-Udalburu jaunak** azken osoko bilkura arruntetik hona emandako Alkatetzaren ebazpenen edukiaren berri eman du, akta honi I. eta II. Eranskinean erantsi zaizkionak.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

**3. PSE-EE (PSOE) udal taldeak hainbat batzorde aholkularitan egindako bokal-aldaketaren berri ematea.**

PSE-EE (PSOE) Udal taldeak aurkeztu duen idatzi honen berri eman da:

Nik, Ana Telleria Echeverriak, PSE-EE (PSOE) udal taldearen koordinatzaileak, batzordeetako bokaletan egindako honako aldaketa hauen berri ematen dut,

VOTOS EN CONTRA: (0).
ABSTENCIONES: 5 - EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**2. Dación de cuentas de Resoluciones de Alcaldía.**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 234 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el **Sr. Alcalde-Presidente** da cuenta del contenido de las Resoluciones de Alcaldía dictadas desde la última sesión plenaria ordinaria, que se adjuntan al presente acta como Anexo I y II.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**3. Dación de cuentas de cambio de vocales del grupo municipal PSE-EE (PSOE) en diferentes comisiones asesoras.**

Se da cuenta del siguiente escrito del Grupo municipal PSE-EE (PSOE):

Yo, Ana Telleria Echeverria, Coordinadora del Grupo municipal PSE-EE (PSOE), comunico los siguientes cambios en las vocalías de las comisiones, consecuencia

Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna eta Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna berriz lanean hasi direlako:

**KULTURA BATZORDE AHOLKULARIA**

Patricia Arrizabalaga Larrañaga and.

**GAZTERIA BATZORDE AHOLKULARIA**

Patricia Arrizabalaga Larrañaga and.

**ZERBITZU ETA AZOKETAKO BATZORDE AHOLKULARIA**

Francisco Javier Lejardi Galarraga jn.

**TRAFIKO ETA GARRAIO BATZORDE AHOLKULARIA**

Francisco Javier Lejardi Galarraga jn.

**EGO IBARRA BATZORDE AHOLKULARIA**

Francisco Javier Lejardi Galarraga jn.

**EUSKARA BATZORDE AHOLKULARIA**

Ander Curiel Ayuso jn.

**ENBA Batzorde Aholkularia**

Ander Curiel Ayuso jn.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

de las reincorporaciones de D. Francisco Javier Lejardi Galarraga y D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre:

**COMISION ASESORA DE CULTURA**

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga

**COMISION ASESORA DE JUVENTUD**

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga

**COMISIÓN ASESORA DE SERVICIOS Y MERCADOS**

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga

**COMISIÓN ASESORA DE TRÁFICO Y TRANSPORTE.**

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga

**COMISIÓN ASESORA DE EGO IBARRA**

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga

**COMISIÓN ASESORA DE EUSKERA**

D. Ander Curiel Ayuso.

**Comisión Asesora de ENBA**

D. Ander Curiel Ayuso.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**4. EH Bildu udal taldeak hainbat batzorde aholkularitan egindako bokal-aldaketaren berri ematea.**

**4. Dación de cuentas de cambio de vocales del grupo municipal EH Bildu en diferentes comisiones asesoras.**

EH Bildu Udal taldeak aurkeztu duen idatzi honen berri eman da:

Se da cuenta del siguiente escrito del grupo municipal EH Bildu

Idatzi honen bidez, EH Bildu udal Taldeak, hainbat Batzorde Aholkularitan ordezkariak aldatzea nahi dituela jakinarazten dizuegu.

Aldaketa hauei buruz Batzorde Aholkulari horietako Batzordeburuak ere informatzea eskertuko genizueke.

**OBRA BATZORDE AHOLKULARIA**

Miren Baranguan Yarza and.

**HIRIGINTZA BATZORDE AHOLKULARIA**

Miren Baranguan Yarza and.

**GIZARTEKINTZA BATZORDE AHOLKULARIA**

Gorka Errasti Bernedo jn.

Udalkideak jakinaren gainean geratu dira.

**5. Berrazterketa-errekurtsoak 2021eko urriaren 25eko Udal Osoko bilkurak hartutako erabakiaren kontra. Erabaki hartan Eibarko Udalaren eta Euskal Trenbidea Sarearen arteko lankidetza-hitzarmena onetsi zen, Eibar-Azitain trenbideak duen trazatuaren hiri-**

Por el presente escrito, el grupo municipal EH-Bildu comunica que desea efectuar los siguientes cambios de representantes en diferentes Comisiones Asesoras.

Les agradeceríamos que informaran también de estos cambios a las presidencias de dichas Comisiones Asesoras.

**COMISION ASESORA DE OBRAS**

Dña. Miren Baranguan Yarza.

**COMISION ASESORA DE URBANISMO**

Dña. Miren Baranguan Yarza.

**COMISIÓN ASESORA DE SERVICIOS SOCIALES**

D. Gorka Errasti Bernedo.

Los miembros de la Corporación se dan por enterados.

**5. Recursos de reposición interpuestos contra acuerdo de Pleno de 25 de octubre de 2021 mediante el que se aprobó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbide Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado**

**integrazioa hobetzeko.**

2021eko urriaren 25eko Udal Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren aurka sartutako berrazterketa-errekurtsoen berri eman da. Erabaki horren bidez Eibarko Udalaren eta Euskal Trenbide-Sarearen arteko lankidetza-hitzarmena onetsi zen, Eibar-Azitain trenbidearen trazadura hirian hobeto txerta dadin. Idazkaritzaren 2022ko urtarrilaren 19ko txostenaren berri ere eman da.

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordeak, aldeko 3 botorekin (PSE-EE(PSOE)), kontrako boto 1ekin (Elkarrekin Eibar – Podemos /Ezker Batua Anitza-IU/Equo Berdeak) eta 5 abstentziorekin (Eibarko EAJ-PNV eta EH Bildu), Udal Osoko Bilkurari erabaki hau hartzeko proposamena egiten dio:

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA.-** Ez onartzea, epez kanpo aurkezteagatik, Eibar-Azitain trenbidearen trazaduraren hiri-integrazioa hobetzeko Udalaren eta Euskal Trenbidea Sarearen arteko lankidetza-hitzarmena onetsi zuen 2021eko urriaren 25eko Osoko Bilkuraren erabakiaren kontra jarritako berraztertze-errekurtsoak, honako pertsona hauek jarritakoak:

**ferroviario de Eibar-Azitain.**

Se da cuenta de los recursos de reposición interpuestos contra acuerdo de Pleno Municipal de 25-10-2021 mediante el que se aprobó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbidea Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar-Azitain, así como del informe de Secretaría, de 19 de enero de 2022.

La Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales con 3 votos a favor (PSE-EE (PSOE)), 1 en contra (Elkarrekin Eibar – Podemos /Ezker Batua Anitza-IU/Equo Berdeak) y 5 abstenciones (Eibarko EAJ-PNV y EH BILDU); propone al Pleno Municipal la adopción del siguiente

**ACUERDO**

**PRIMERO.-** Inadmitir, por extemporáneos, los recursos de reposición interpuestos por D. Enrique Montero Aristondo, Dña. Sonia García López, Dña. Leire Bercianos Santa-María, Dña. María Jesús Arizaga Telleria, D. Óscar San Martín Andueza, Dña. Leire Troitiño Berasategui, Dña. Eneritz Guisasola Arana, D. Jesús Manuel Keller Echevarria, Dña, Ane Urkiola

Enrique Montero Aristondo jauna, Sonia García López andrea, Leire Bercianos Santa-María andrea, María Jesús Arizaga Telleria andrea, Óscar San Martín Andueza jauna, Leire Troitiño Berasategui andrea, Eneritz Guisasola Arana andrea, Jesús Manuel Keller Echevarria jauna, Ane Urkiola Zendoia andrea, Andrea Alberdi Domínguez andrea, Paula Alberdi Domínguez andrea, María Milagros Arrieta Aguirre andrea, Ane Miren Zubia Carral andrea, Javier Yarza Amillategui jauna.

Zendoia, Dña. Andrea Alberdi Domínguez, Dña. Paula Alberdi Domínguez, Dña. María Milagros Arrieta Aguirre, Dña. Ane Miren Zubia Carral, D. Javier Yarza Amillategui, contra el acuerdo del Pleno, de 25 de octubre de 2021, mediante el que se aprobó el convenio de colaboración entre el Ayuntamiento de Eibar y Euskal Trenbidea Sarea para la mejora de la integración urbana del trazado ferroviario de Eibar-Azitain.

**BIGARRENA.-** Erabaki hau doakienei jakinaraztea bidezko errekurtsoak adieraziz.

**SEGUNDO.-** Notificar el presente acuerdo a las personas interesadas con indicación de los recursos que procedan.

EIBARKO EAJ-PNV TALDEAREN BOZERAMAILEAK GAIA MAHAI GAINEAN UZTEKO EGINDAKO PROPOSAMENAREN BOZKETAREN EMAITZA:

RESULTADO DE LA VOTACIÓN DE LA PROPUESTA FORMULADA POR EL PORTAVOZ DEL GRUPO MUNICIPAL EIBARKO EAJ-PNV DE DEJAR EL ASUNTO SOBRE LA MESA:

ALDEKO BOTOAK: 10 - Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: 9- PSE-EE (PSOE).
ABSTENTZIOAK: 1 – Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga (EH Bildu), bozkatzeko unean konexioa eten egin delako.

VOTOS A FAVOR: 10 - Eibarko EAJ-PNV (6). EH Bildu (3), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA:9 - PSE-EE (PSOE).
ABSTENCIONES: 1 – Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga (EH Bildu), al haberse interrumpido la conexión en el momento de producirse la votación.

Horren ondorioez, gaia mahai gainean utzi da.

En consecuencia, el asunto queda sobre la Mesa.

**6. Foru Aldundia eta Eibarko Udala administrazioen arteko lankidetza-hitzarmena menpekotasunen bat duten pertsonen etxeko laguntza finantzatzeko.**

**6. Convenio de cooperación interadministrativa entre la Diputación Foral y el Ayuntamiento de Eibar para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio para personas dependientes.**

Atal honetan izandako konexio-arazoak direla eta, transkribatu egin dira Fernández Pejenaute andreak eta Errasti Bernedo jaunak esandakoak.

Debido a los problemas de conexión producidos en este punto, se transcriben las intevenciones de la Sra. Fernández Pejenaute y del Sr. Errasti Bernedo.

**Fernández Pejenaute andreak** azaldu du atal honetan Udalbatzarra ekarri dena Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018. urtean sinatu zuten hitzarmenaren berriztapena dela, eta, zehazki, Eibarko Udalarekin, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzua erabiltzen dutenentzako arreta hobetzeko. Hitzarmenaren indarraldia iazko irailaren 30ean amaitu zen eta berria 2023ra arte egongo da indarrean, eta horren bidez, mendekotasuna duten pertsonei eskaintzen zaien zerbitzu honen baldintzak arautzen dira foru-finantzaketarako.

La **Sra. Fernández Pejenaute** expone que en este punto se trae a pleno la renovación del convenio que suscribieron los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa con la Diputación Foral de Gipuzkoa en el año 2018, y en concreto con el Ayuntamiento de Eibar, con la finalidad de mejorar la eficacia de la gestión pública y la atención a las personas usuarias del Servicio de Ayuda a Domicilio, y cuya vigencia finalizó el 30 de septiembre del año pasado. Este nuevo convenio tendrá vigencia hasta el año 2023. A través del mismo, se regulan las condiciones para la financiación foral de este servicio prestado a personas dependientes.

Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia- eta prebentzio-zerbitzu bat da, erabiltzaileei beren etxean ahalik eta denbora gehien bizi izaten laguntzen diena, ingurune horretan moldatzeko eta komunitatean integratzeko

El Servicio de Ayuda a Domicilio es un servicio asistencial y preventivo que consiste en ayudar a las personas usuarias a seguir viviendo el mayor tiempo posible en su domicilio, ofreciendo ayuda

laguntza eskainiz, isolamendua saihestuz. Hiru laguntza mota eman daitezke: arreta pertsonala, etxeko lanetarako laguntza eta laguntza soziala.

para desenvolverse en ese entorno e integrarse en su comunidad, evitando su aislamiento. Se pueden prestar tres tipos de atención: atención personal, ayuda para las labores domésticas y de acompañamiento social.

Inori ez zaio oharkabean pasatzen Eibarko biztanleria zahartze-prozesuan dagoela, industria-gizarte gehienetan bezala. Bizi-itxaropena luzatzen ari da, eta, horregatik, ezinbestekoak dira Etxeko Laguntza bezalako zerbitzuak.

No se le escapa a nadie que la población de Eibar está sufriendo un proceso de envejecimiento, como en la mayoría de las sociedades industriales. La esperanza de vida se va alargando, y por ello, servicios como el de Ayuda a Domicilio son fundamentales.

Kalitatezko zerbitzua eman behar dugu, pertsonei beren etxeetan, beren giroan, beren auzoetan, ez bakarrik ahal den denbora guztian baizik eta baldintza duinetan ere, egon ahal izateko. Eta duinak izan behar dute baita zerbitzu hori ematen duten pertsonen lan-baldintzak ere. Horregatik, ez dugu ulertzen nola litekeen hitzarmen bidez ordu bakoitzeko 18,87 euro kobratzera iristera aste barruan, eta 22,66 euro asteburuetan; eta Eibarren, berriz, 15 euro orduko kobratzea aste barruan, eta 18,01 euro asteburuan. Uste dut hori kontuan hartu beharko genukeen zerbait dela.

Debemos dar un servicio de calidad, que permita a las personas permanecer en sus casas, en su ambiente, en sus barrios, no sólo todo el tiempo que se pueda, sino también en condiciones dignas. Y dignas deben ser también las condiciones laborales de las personas que prestan este servicio. Por eso no entendemos que por convenio se pueda llegar a cobrar 18,87 euros la hora, entre semana, y 22,66 euros, el fin de semana, mientras que en Eibar se cobre 15 euros la hora, entre semana, y 18,01 euros el fin de semana. Creo que es algo que deberíamos tener en consideración.

Zerbitzu honetako biharginek pertsonekin egiten dute lan, ez makinekin; beraz, haien lan-egoerak lehentasuna izan behar du, beren osasunean eta erabiltzaileei

Las personas trabajadoras de este servicio trabajan con personas, no con máquinas, por lo que su situación laboral debe ser prioritaria para que repercuta en

eskaintzen dieten zerbitzuaren kalitatean eragina izan dezan.

su propia salud, así como en la calidad del servicio que se ofrece a las personas usuarias.

**Errasti Bernedo jaunak** gogorarazi du gutxi gorabehera lau urtetik behin berritzen dela Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta udalen arteko hitzarmena, eztabaidatzen ari diren atalak aipatzen duena.

El **Sr. Errasti Bernedo** recuerda que aproximadamente cada cuatro años se renueva el convenio entre la Diputación Foral de Gipzukoa y los ayuntamientos, al que se refiere el punto que se está debatiendo.

Esaten du bere taldearentzat garrantzitsua dela hitzarmena eta etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko iturria, batez ere udal txiki batentzat.

Para su grupo resulta importante el convenio y la fuente de financión del servicio de ayuda a domicilio, sobre todo para un ayuntamiento pequeño.

2018an sartu ziren  hitzarmen horretan gaur egun dauden hobekuntza gehienak, zerbitzu osoagoa eta zabalagoa eskaintzeko: ordutegiak, laguntza-zerbitzua handitzea eta, garrantzitsuena, erabiltzaileentzako gehienezko prezio bakar bat ezartzea.

En el año 2018 se introdujeron en dicho convenio la mayor parte de las mejoras actuales, con el fin de ofrecer un servicio más completo y amplio: horarios, ampliación del servicio de acompañamiento, y lo más importante, fijar un precio máximo común para las personas usuarias.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diru-ekarpen bat egiten du zerbitzuaren zati bat finantzatzeko, zerbitzuaren kostua handiagoa izanik, hobekuntza horiek egin ondoren. Eta zati bat diot, foru-entitateak ez duelako zerbitzu osoa ordaintzen, gehieneko kopuru batera arte baizik.

La Diputación Foral de Gipuzkoa realiza una aportación para financiar parte del servicio, que es mayor, una vez incorporadas esas mejoras. Y digo parte, porque la entidad foral no sufraga la totalidad del servicio, sino hasta una cantidad máxima.

Hala, Eibarren, gero eta zerbitzu zabalagoa eskaintzen duen eta erabiltzaile gehiago dituen zerbitzu hau finantzatzeko, inbertsio

Así, en Eibar la financación de un servicio cada vez más amplio y con más personas usuarias, exige una mayor inversión,

handiagoa egin behar da, 2022 honetan milioi bat euroraino iritsi dena.

hasta el punto que en este año 2022 se ha alcanzado el millón de euros.

Milioi bat euroko inbertsioa zerbitzua azpikontratatzeko; enpresa pribatu batek etxeko laguntza zerbitzua eskaintzeko erabiltzen den zenbatekoa.

Un millón de euros de inversión para subcontratar el servicio; una cantidad que se destina a que una empresa privada ofrezca el servicio de ayuda a domicilio.

Hau da, Eibarko Udalaren zerbitzu-azpikontratazio handienetako bat.

En definitiva, una de las subcontrataciones de servicios más altas del Ayuntamiento de Eibar.

Zerbitzu hau sortu zenean, Eibarko Udala aitzindaria izan zen, zerbitzua profesional funtzionarioekin eskaintzen hasi zelako. Haiek erretiroa hartzen joan diren neurrian, zerbitzua azpikontratatuz joan da, milioi bat euroko gastu honetara iritsi arte.

Cuando se creó este servicio, el Ayuntamiento de Eibar fue pionero, porque se comenzó a ofrecer con profesionales funcionarias. A medida que éstas se han ido jubilando, el servicio se ha ido subcontratando, llegando a este millón de euros de gasto.

Behin hona iritsita, jatorrizko lekura itzultzea planteatu beharko litzateke; zerbitzua erabat publikoa izateko izapideak egiten hasi beharko lirateke, profesional funtzionarioen plantilla batekin. Kostatu egingo da, baina esaten du lortuko dela. Beste udal batzuen adibideak ipini ditu, hala nola Hernaniko Udalarena, eta galdetzen du aitzindari izan garenok zergatik ez dugun eredu hori jarraitu.

Llegados a este punto, cabría plantearse volver al lugar de origen; se deberían comenzar los trámites para que el servicio sea íntegramente público con una plantilla de profesionales funcionarias. Costará pero asegura qu ese conseguirá. Apela al ejemplo de otros ayuntamientos, como el de Hernani y, por tanto, se pregunta por qué no seguir el mismo ejemplo por parte de quienes fuimos pioneros.

**Fernández Pejenaute andreak** dio bera bat datorrela EH Bildu udal taldearen bozeramaleak esandakoarekin, eta oro har, zerbitzu publiko bat birmunizipalizatzea proposatzen duenarekin.

La **Sra. Fernández Pejenaute** coincide con el portavoz del grupo municipal de EH Bildu, y en general, con quien proponga remunicipalizar un servicio público.

**Errasti Bernedo jaunak** diru publikoaren kontrol handiagoa eskatu du, benetan langilearengana hel dadin, lan benetan gogorra eta baliotsua egiten baitu: adinekoak zaindu eta laguntzea, alegia.

El **Sr. Errasti Bernedo** solicita un mayor control del dinero público, para que efectivamente llegue a la persona trabajadora, quien lleva a cabo una labor tan dura y valiosa como es el cuidado y acompañamiento de personas mayores.

Alde horretatik, gogora ekarri du zer egoeratan zeuden langile horiek 2016. urtean, salatu zuten arte: zenbateko jakin bat ordaindu arren ordu bakoitzeko, eurei miseria hutsa iristen zitzaien, eta zatirik gehiena Florentino Pérezen esku geratzen zen.

En este sentido, recuerda la situación en la que se encontraban estas trabajadoras en 2016 hasta el momento en el que la denunciaron: a pesar de que se abonase una determinada cantidad la hora, les llegaba una verdadera miseria, mientras que la mayor parte quedaba en manos de Florentino Pérez.

Laburbilduz: emakumea prekarioan zaintza-lanean, eta bada ordua hori nabarmentzeko.

En definitiva, mujer precaria dedicada a los cuidados, y ya es hora de ponerlo en valor.

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), - EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: (0).
ABSTENTZIOAK: (0).

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADO.

VOTOS A FAVOR: 20 - PSE-EE (PSOE) (9), Eibarko EAJ-PNV (6), EH Bildu (4), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA: (0).
ABSTENCIONES: (0).

Gizartekintza Batzorde Aholkulariak Gipuzkoako Foru Aldundiak bidali duen testua aurkeztu du onetsi dadin.

Por la Comisión Asesora de Servicios Sociales se presenta el texto remitido por la Diputación Foral de Gipuzkoa para su aprobación.

Mendekotasuna duten pertsonentzako Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Foru Aldundiaren eta Eibarko Udalaren arteko lankidetza-hitzarmenaren berri eman da, bai eta Gizarte Zerbitzuen eta Etxeko Laguntzaren arduradunen txostenen berri ere, aurrena 2022ko urtarrilaren 17koa eta 18koa hurrena. Idazkaritzako eta Kontu-hartzailetzako txostenen berri ere eman da, 2022ko urtarrilaren 19koak biak.

Se da cuenta del texto del convenio de cooperación interadministrativa entre la Diputación Foral y el Ayuntamiento de Eibar para la financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio para personas dependientes, así como de los informes de las Responsables de Servicios Sociales y de Ayuda a Domicilio de fechas 17 y 18 de enero de 2022 respectivamente, y del los informes de Secretaría y de Intervención, de 19 de enero de 2022.

Hitzarmenaren helburua da mendekotasuna duten pertsonei eta laguntza behar duten beste talde edo kolektibo batzuei udalerrian ematen zaien Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru-finantzaketarako baldintzak zehaztea, aldez aurretik Erakunde arteko Mahaiak hala erabakita.

El objetivo del mismo es definir las condiciones para la financiación foral del Servicio de Ayuda a Domicilio prestado en el municipio a personas calificadas como dependientes, así como a otros colectivos sujetos de atención, previo acuerdo de la Mesa Interinstitucional.

Kontuan hartuta Erakunde eta Lege gaietarako Lan Batzordearen aldeko irizpena, 2022ko urtarrilaren 24koa.

Considerando el dictamen favorable de la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos e Institucionales, de 24 de enero de 2022.

Udal Osoko bilkurak honako erabaki hau hartu du:

El Pleno de la Corporación, adopta el siguiente:

**ERABAKIA**

**ACUERDO**

**LEHENENGOA.-** Menpekotasunen bat

**PRIMERO.-** Aprobar el Convenio para la

duten pertsonei Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko hitzarmena onartzea.

financiación del Servicio de Ayuda a Domicilio para personas dependientes.

**BIGARRENA.-** Alkate-udalburu jaunari, Jon Iraola Iriondo jaunari, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpetu behar den Hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

**SEGUNDO.-** Facultar al Alcalde-Presidente, D. Jon Iraola Iriondo, para la firma del Convenio a suscribir con la Diputación Foral de Gipuzkoa.

**7. Elkarrekin Eibar Podemos/Ezker Anitza-IU Equo Berdeak taldeak aurkeztu duen mozioa, Osasun Mentalari buruzko Udal Plan bat egiteko proposamena eginez.**

**7. Moción presentada por Elkarrekin Eibar-Podemos/Esker Anitza – IU/ Equo Berdeak proponiendo realizar un Plan de Salud Mental Municipal.**

Atal honetan izandako konexio-arazoak direla eta, transkribatu egin dira Fernández Pejenaute andreak eta Errasti Bernedo jaunak esandakoak.

Debido a los problemas de conexión producidos en este punto, se transcriben las intevenciones de la Sra. Fernández Pejenaute y del Sr. Errasti Bernedo.

**Fernández Pejenaute andreak** dio osasun mentala funtsezkoa dela gure bizitzan. Osasun mentalak gure ongizate emozional, psikologiko eta soziala hartzen ditu bere gain. Bizitzari aurre egiten diogunean nola pentsatzen dugun, sentitzen eta jarduten dugun moduak eragiten du. Estresa gobernatzen, besteekin harremanak izaten eta erabakiak hartzen laguntzen digu.

La **Sra. Fernández Pejenaute** afirma que la salud mental es fundamental en nuestras vidas. La salud mental incluye nuestro bienestar emocional, psicológico y social. Afecta la forma en que pensamos, sentimos y actuamos cuando enfrentamos la vida. También ayuda a determinar cómo manejamos el estrés, nos relacionamos con los demás y tomamos decisiones.

Nola ez, osasun mentala garrantzizkoa da bizitzaren sasoi guztietan, umetatik eta nerabetasunetik hasi eta heldutasunera eta zahartzarora heldu arte.

Por supuesto, la salud mental es importante en todas las etapas de la vida, desde la niñez y la adolescencia hasta la adultez y la vejez.

Osasun mentalak garrantzia izan arren, arlo honetako arreta-gabezia egiturazkoa zen gure sisteman, baita pairatzen ari garen pandemia baino lehen ere. Arartekoaren arabera (2020), osasun publikoan psikologiako 6 profesional bakarrik daude 100.000 biztanleko, Europako batezbestekoaren herena baino ez.

A pesar de la importancia que la salud mental tiene, el déficit de atención en esta materia ya era estructural en nuestro sistema incluso antes de la pandemia que estamos sufriendo. Según el Defensor del Pueblo (2020), sólo hay 6 profesionales de la psicología en la sanidad pública para cada 100.000 habitantes, apenas un tercio de la media europea.

Pandemia-egoera luzatu egin da, eta, horren ondorioz, gero eta gehiago dira osasun mentalarekin zerikusia duten nahasteak, hala nola antsietatea (% 21,6), depresioa (% 18,7) edo estres postraumatikoaren sintomatologia (% 15,8).

La prolongación en el tiempo de la situación de pandemia ha originado un incremento progresivo en la incidencia de trastornos relacionados con la salud mental, tales como la ansiedad (21.6%), depresión (18.7%) o sintomatología de estrés postraumático (15.8%).

Ikerketen arabera, biztanleria orokorrean sufrimendu psikologikoak gehien eragin dien pertsonak gaixotasun kronikoak dauzkatenak, emakumeak eta 18-25 urte bitartekoak izan dira.
Izugarrizko osasun-arazoa dugu aurrean, eta, neurri egokiak hartzen ez baditugu, izugarri handitzen joango da.

Las personas más afectadas por el sufrimiento psicológico en la población general según los estudios han sido aquellas con enfermedades crónicas, sexo femenino y edades entre 18-25 años.
Nos enfrentamos a un problema de salud enorme, y que, si no ponemos las medidas adecuadas, irá incrementándose de manera alarmante.

Horregatik, mozio honen bidez, Udalak Osasun Mentaleko Udal Plana egitea proposatzen dugu, gizarte-determinatzaileek biztanlerian duten eragina murrizteko, eta Udalak berak dituen eskumenen bidez, osasun mentaleko

Por ello, proponemos a través de esta moción que el ayuntamiento realice un Plan Municipal de Salud Mental, con el fin de reducir el impacto de los determinantes sociales en la población y que colabore con el desarrollo de la prevención y el

prebentzio eta zainketa komunitarioaren garapenean laguntzeko.

cuidado comunitario en salud mental a través de las competencias municipales de las que dispone.

Argi dago osasun mentalaren arloan udalek dituzten zuzeneko eskumenak mugatuak direla, izan ere, ezin ditugu kontratatu psikologiako eta psikiatriako profesionalak, ez eta osasun-zentroan jarri ere, eta talde jakin batzuetan esku-hartzea ere mugatua da. Baina udalek beste eskumen asko dituzte, biztanleen osasun mentalean zuzeneko eragina dutenak.

Está claro que las competencias directas de los Ayuntamientos en cuestión de salud mental son limitadas, en el sentido de que no podemos contratar a profesionales de la psicología y psiquiatría y ponerlos en el centro de salud, e incluso la propia intervención en determinados colectivos es también limitada. Pero los ayuntamientos tienen otras muchas competencias con relevancia directa en la salud mental de su población.

Udal-eremua funtsezko gobernu-maila bat da osasun komunitarioko prozesuak bultzatzeko, biztanleriaren osasuna sustatuko duten politikak eta ekimenak bultzatzeko. Udal instituziotik lan egiteko aukera nagusia tokiko administrazioa herritarrengandik hurbil egotea da. Horri esker, hobeto ezagutu daitezke lurralde bateko osasun-beharrak eta -aktiboak, baita garapen eta parte-hartze komunitarioko prozesuak artikulatu eta erraztu ere.

El ámbito municipal constituye un nivel de gobierno fundamental para impulsar procesos de salud comunitaria, así como políticas e iniciativas que promuevan la salud de la población. La principal oportunidad de trabajar desde la institución municipal es la proximidad de la Administración local a la ciudadanía. Ello permite tanto conocer mejor las necesidades y activos de salud de un territorio como articular y facilitar procesos de desarrollo y participación comunitaria.

Horregatik, udalek espazio fisikoen eta gizarte-inguruneen hobekuntzatik haragoko ekintzak egin behar dituzte, osasunaren gizarte-determinatzaile guztiei eragiten dietenak, irizpide hauek modu transbertsalean kontuan hartuta: ekitatea,

Por ello, los ayuntamientos deben llevar a cabo acciones que trasciendan la mejora de los espacios físicos y los entornos sociales, y que incidan sobre todos los determinantes sociales de la salud teniendo en cuenta los siguientes criterios de forma transversal: equidad,

herritarren parte-hartzea eta sektorearteko harremanak.

participación ciudadana e intersectorialidad.

Horrela, bizitza- eta lan-baldintzek —gizarte-, lan- eta ekonomia-politikek zehazten dituztenak— eragina dute pertsonen osasunean, osasun-sisteman bezalaxe. Ekitateari begiratzea eta generoak, adinak, gizarte-klaseak, migrazio-jatorriak edo dibertsitate funtzionalak determinatzaile horiek elkarri eragiten, baldintzatzen edo modulatzen dituztela ulertzea, ezberdintasunen jatorritik hurbilago dauden politikak eta esku-hartzeak planifikatu eta gauzatzeko aukera ematen digu, bereziki toki-eremuan.

De esta manera, las condiciones de vida y trabajo, que a su vez son determinadas por las políticas sociales, laborales y económicas, influyen en la salud de las personas tanto como el sistema sanitario. Poner la mirada en la equidad y entender cómo el género, la edad, la clase social, el origen migratorio o la diversidad funcional interaccionan, condicionan o modulan dichos determinantes, nos permite planificar y llevar a cabo políticas e intervenciones más cercanas al origen de las desigualdades, especialmente en el ámbito local.

**Errasti Bernedo jaunak** ohartarazi du ezen, zenbait mozio ezberdinen aurrean gaudela egia den arren, guztiek jorratzen dutela gai garrantzitsu bat: osasun mentala eta osasunaren zati garrantzitsu horren zainketa. Are gehiago bizi dugun osasun-pandemia honen antzeko egoera batean, guztion osasun mentalari kalte handia egin baitio, eta depresio-, estres- edo antsietate-kasuak modu larrian gehitu dira, buru-osasunarekin zerikusia duten ondorioekin, suizidio kasuetan, esaterako.

El **Sr. Errasti Bernedo** advierte que, si bien es cierto que nos encontramos ante varias mociones distintas, todas tratan un tema tan importante como es la salud mental y el cuidado de esa importante parte de la salud. Más en una situación como la de esta pandemia sanitaria que estamos viviendo, que no ha hecho más que una gran mella en la salud mental de todas y todos, con graves aumentos en casos de depresión, de estres o de ansiedad, en consecuencias relacionadas con la salud mental, como los casos de suicidio.

Bere iritziz, ematen zaion garrantzia pixkanaka gehitzen ari dela dirudien arren, bada ordua osasun mentalak pertsonen

En su opinión, aunque poco a poco parece que va en aumento, es hora de visibilizar aun más, de normalizar la

osasunean duen garrantzia gehiago ikusarazteko, normalizatzeko.

importancia de la salud mental en el conjunto de la salud de las personas.

Horregatik guztiagatik, esaten du bere udal taldearen iritziz Osasun Mentaleko Udal Plana idaztea baino askoz haruntzago joan behar dela; eta, gainera, gure eskumenei mugatutakoa izango litzateke, eskumen gutxi dira-eta.

Por todo ello, desde su grupo municipal entienden que se debe ir mucho más allá que la redacción de un Plan Municipal de Salud Mental y además, encorsetado a nuestras competencias, que son pocas.

Haien ustez, partxeak jartzea izango litzateke, tiritak jartzea euskal osasun-sistemaren arazo bati, eta horri dagokio benetan eskumena. Esaten du badela garaia eskumen hori benetan egiten dena baino serioago hartzeko, osasun mentala baita Osakidetzaren ahanzturarik handiena, eta hori ez da udal plan baten bidez konpontzen. Bere eskaintzan arazo estrukturala zuen zerbitzua bazen, azken hamarkadan % 10 murriztu da osasun mentalari eskaintzen zaion arreta.

Consieran que sería parchear, ponerle tiritas a un problema del sistema vasco de salud, a quien realmente corresponde la competencia. Competencia que ya va siendo hora que se la tome más en serio de lo que realmente se hace, porque la salud mental es la gran olvidada de Osakidetza. y esto no se soluciona con un plan municipal. Si ya era un servicio con un problema estructural en su oferta, durante la última década la atención de salud mental se ha visto reducida en un 10%.

Alde horretatik, pandemiak agerian laga besterik ez du egin Osakidetzak lehentasuna eman behar diola osasun mentala zaintzeari. Horren adierazle larria suizidioa da: aurreko urtean baino % 27 gehiago (187 kasu Euskal Autonomia Erkidegoan), edo osasun mentalarekin zerikusia duten kontsultak izan duten % 13ko gorakada.

En este sentido, la pandemia no ha hecho más que dejar en evidencia que el cuidado de la salud mental por parte de Osakidetza tiene que ser prioritaria. Un grave indicador de ello es el suicidio, con un aumento del 27% respecto al año anterior (187 casos en la Comunidad Autónoma Vasca) o el aumento del 13% de las consultas relacionadas con la salud mental.

Horregatik guztiagatik, azpimarratu du udal plan batek ez duela askotarako balio izango egoera honi buelta emateko. Uste du zuzena eta bidezkoa dena, tokatzen dena, Osakidetzak osasun mentaleko bere zerbitzuak indartzea dela, giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak jarriz, eta, horrez gain, programa berriak eta zerbitzu berriak bultza ditzala. Osasun mentaleko sistema publiko bat behar da, premia duen pertsona bakoitza zaindu eta lagunduko duena; erreala, serioa eta beharrezkoa da.

Por todo ello, insiste en que un plan municipal poco servirá para darle la vuelta a esta situación. Cree que lo correcto y lo que toca es que Osakidetza refuerce sus servicios de salud mental, con recursos humanos y económicos. y que impulse además, nuevos programas, nuevos servicios. Hace falta un sistema público de salud mental que cuide, que acompañe a cada persona que lo necesite; es algo real, serio y necesario.

Azpimarratu du behar hori ezin dela bakarrik kaudimen ekonomikoaren ikuspegitik aztertu, pertsona batek bere osasun mentala bere kaudimenaren arabera zaindu ahal izango duen, poltsikoan duen ahalmen ekonomikoaren arabera, eta zerbitzu psikologiko pribatu bat ordaindu ahal izan dezakeen ala ez. Baldintzatzaile hori ez da onargarria.

Resalta que esa necesidad no puede analizarse únicamente en clave de solvencia económica, si una persona podrá cuidar de su salud mental según su solvencia la capacidad económica de la que disponga, de su bolsillo, y de si se puede permitir un servicio psicológico privado o no. Ese condicionante no es admisible.

Beharrezkoa da sistema publiko eta unibertsal bat —beste zerbitzu batzuetan bezala edo gehiago—, eta, gero, Udalak, bere eskumen urrien barruan, osasun mentaleko programa horiek osa ditzala, batez ere komunitateari zuzenduak.

Resulta necesario un sistema público y universal -igual, o más, que en otros servicios sanitarios-, y que posteriormente el ayuntamiento complemente, dentro de sus pocas competencias, dichos programas de salud mental, sobre todo, dirigidos a la comunidad.

Laburbilduz, egitura-karentzia hori ez bada indartzen oso gutxi lortuko da.

En defintiva, si no se fortalece esa carencia estructural se logrará muy poco.

Fernández Pejenaute andreak eskertu du mozioak Bozeramaleen Batzarrean izan

La **Sra. Fernández Pejeanute** agradece la buena acogidda que tuvo la moción en

zuen onarpena, egunetik egunera areagotzen ari den arazo hau konpondu eta prebenitu beharra dagoelako. Ondoren, PSE-EE eta EH Bilduko udal taldeek erdibideko mozioa aurkeztu zuten. Azken astean akordioa lortzen saiatu dira, baina azkenean ezin izan da akordio hori lortu.

la Junta de Protavoces, porque resulta totalmente necesario poner remedio y prevención a este problema que se incrementa día a día. Posteriomente, los grupos municipales del PSE-EE y EH Bildu presentaron una moción transaccional. Durante la última semana se ha intentado llegar a un acuerdo, aunque finalmente ese acuerdo no ha podido ser.

Berak uste du Eibarko Udalak badituela eskumenak arlo horretan; izan ere, proposatutakoa bezalako planak beste udalerri batzuetan gauzatu dira, Bartzelonan, esate baterako.
Halaber, arazo honi aurre egiteko bitartekoak Osasun Sailari dagozkiola dioen diagnostikoarekin bat dator, baina ez du herritarren osasun mentalaren azterketa zatika egin nahi. Egoera hobea duten alde edo leku batzuk egon arren, kontuan hartu behar da pandemiak, neurri handi batean edo gutxiagoan, herritar guztiei eragiten diela.

Entiende que el Ayuntamiento de Eibar sí ostenta competencias sobre esta materia, puesto que planes como el que se propone ya se han materializado en otros municipios, como en el caso de Barcelona.
Asimismo, comparte el diagnóstico de que los medios para hacer frente a este problema corresponden a la Consejería de Salud, pero rechaza realizar un análisis de la salud mental de la ciudadanía por partes. Aunque existan zonas que presenten una mejor situación, hay que tener en cuenta que la pandemia está afectando en mayor o menor medida a toda la ciudadanía.

Arrazoi horrengatik, ezin izan da akordio batera iritsi —hasieran, bazirudien posible zela— eta bere udal taldeak aurkeztutako mozioaren alde bozkatzea erabaki du.

Por esta razón, no se ha podido llegar a un acuerdo -que inicialmente parecía posible- y ha decidido votar a favor de la moción presentada por su grupo municipal.

BOZKETAREN EMAITZA: EZ ONARTUA.

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: NO APROBADA.

ALDEKO BOTOAK: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6) Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
KONTRAKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (4).
ABSTENTZIOAK: (0).

VOTOS A FAVOR: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).
VOTOS EN CONTRA: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (4).
ABSTENCIONES: (0).

**ARRAZOIEN AZALPENA**

Euskal Autonomia Erkidegoan egindako ikerketa batzuen arabera, pandemiaren egoera denboran luzatzeak osasun mentalarekin lotutako nahasmendu batzuen intzidentzia handitzea eragin du, hala nola antsietatea (% 21,6), depresioa (% 18,7) edo trauma osteko estresaren sintomatologia (% 15,8). Azterlanen arabera, sufrimendu psikologikoak gehien erasan dituen pertsonak gaixotasun kronikoak dituztenak, emakumeak, eta 18-25 urte bitartekoak izan dira.

Osasun mentalerako zerbitzuaren defizita lehendik ere egiturazkoa zen gure sisteman. Arartekoaren arabera (2020) osasun publikoan psikologiako 6 profesional baino ez daude 100.000 biztanleko, Europako batezbestekoaren herena baino ez. Eta kopuru hori ez da behar bestekoa arazoari aurre egiteko, ez COVID-19ak eragindako pandemia iritsi aurretik, ezta ondoren ere.

Nolanahi ere, argi dago krisi berri honen ondorioz talde batzuetan bereziki zailtasun handiagoak izan dituztela estresera eta erresilientzia-gaitasunera egokitzeko;

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

Según estudios realizados en la Comunidad Autónoma Vasca, la prolongación en el tiempo de la situación de pandemia ha originado un incremento progresivo en la incidencia de trastornos relacionados con la salud mental, tales como la ansiedad (21.6%), depresión (18.7%) o sintomatología de estrés postraumático (15.8%). Las personas más afectadas por el sufrimiento psicológico en la población general según los estudios han sido aquellas con enfermedades crónicas, sexo femenino y edades entre 18-25 años.

El déficit de atención para la salud mental ya era estructural en nuestro sistema. Según el Defensor del Pueblo (2020), sólo hay 6 profesionales de la psicología en la sanidad pública para cada 100.000 habitantes, apenas un tercio de la media europea. Un número insuficiente para hacer frente a la incidencia de este problema, ni antes ni después de la llegada de la pandemia por la Covid-19.

En todo caso, queda claro que esta nueva crisis ha supuesto un desafío aún mayor para los mecanismos de adaptación al estrés y capacidad de resiliencia para

esaterako, haurren, ikasleen edo patologia fisiko eta mental kronikoak diuztenen kolektiboetan, zeren, nagusiki horiek izan baitira kaltetuenak eta inpaktu psikologiko handiena jasan dutenak, noiz eta osasun-sistema kolapsatu batek dauden baliabide apurrei eragin dienean.

la población general, suponiendo además un desafío especial para algunos colectivos, tales como infancia, estudiantes o personas con patologías crónicas físicas y mentales, que se han visto especialmente afectados y presentan una alta tasa de impacto psicológico, en un momento que los pocos recursosexistentes han sido afectados por un sistema sanitario colapsado.

OMEk berak 2008an ohartarazi zuen determinatzaile sozialak faktore erabakigarriak direla osasun mentalean, eta, orain, berriz ere ohartarazi du faktore psikologiko eta biologikoez gain, “presio sozioekonomiko iraunkorrak arrisku aski ezaguna direla pertsonen eta komunitateen osasun mentalerako. Frogarik nabarienak pobreziaren adierazleekin lotuta daude, eta batez ere hezkuntza-maila baxuarekin”.

La propia OMS ya avisó en 2008 que los determinantes sociales eran factores decisivos en la salud mental, y ahora reitera la advertencia afirmando, que además de los factores psicológicos y biológicos, “las presiones socioeconómicas persistentes constituyen un riesgo bien conocido para la salud mental de las personas y las comunidades. Las pruebas más evidentes están relacionadas con los indicadores de la pobreza, y en particular con el bajo nivel educativo”.

Bereziki kaltetuak izan dira, besteak beste, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeak, migratzaileak, kalean bizi direnak, aurretiko gaixotasun mentalak dituztenak eta adimen-desgaitasuna dutenak, eta kasu askotan bakardadearen faktoreak larriagotu egin du haien egoera.

Los grupos especialmente perjudicados han sido las mujeres que sufren maltrato, personas migrantes, personas en situación de calle, las personas con enfermedades o transtornos mentales previas y las personas con discapacidad intelectual, entre otros, que han sufrido importantes daños psicológicos durante la pandemia, viéndose agravada en muchos casos su situación por el factor de la soledad.

Alde batera utzi gabe Estatu eta Autonomia Erkidego mailako eskumenen baitan har

Sin obviar la necesidad de implementar desde el nivel estatal y autonómico las

daitezkeen neurriak, Udal honek bere gain har ditzake zeharkako eta koordinazio-arloko neurri batzuk Osasun Mentaleko Udal Plan baten bidez, Euskadiko Toki Erakundetako Legeak eta Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak ezarritako eskumenetan oinarrituta, eta betiere aipatutako gainerako erakundeekin lankidetzan.

Hainbat iturri daude Udal Plan bat egiteko erreferentzia gisa balio dezaketenak, hala nola Covid 19aren Liburu Zuria, sektoreko profesionalek egina; Euskal Autonomia Erkidegoko Osasun Mentaleko Estrategia; edo baita Helsinkiko Plan bezalako akordio instituzionalak ere; gainera, badira beste udal batzuek egindako planak ere, hala nola Bartzelonak aurkeztu duen plangintza osoa, zeinak tokiko eskumenen osasun mentalari buruz gara daitezkeen ekintza guztiak garatzen baititu. Horrez gain, eskura dauden sektore akademiko, profesional eta sozialen lankidetza eska daiteke.

Horregatik guztiagatik, honako Akordio hau proposatzen dugu:

**ERABAKIA**

Osasun Mentalari buruzko Udal Plan bat egitea, determinatzaile sozialek

acciones necesarias que son de su competencia, desde este municipio se pueden llevar a cabo una serie de medidas transversales y de coordinación, a través de un Plan Municipal de Salud Mental, en base a las competencias dispuestas por la LILE y la LRBRL, y siempre en coordinación con el resto de niveles institucionales ya mencionados.

Existen numerosas fuentes que pueden servir como referente para elaborar un Plan Municipal, desde el Libro Blanco de la Covid 19, elaborado por profesionales del sector, la Estrategia de Salud Mental de la Comunidad Autónoma del País Vasco, o incluso acuerdos institucionales como el Plan de Helsinki, además del ejemplo de otros planes municipales, que ya han tomado otros Ayuntamientos como es el caso de Barcelona - que ha presentado un plan integral que desarrolla todas las acciones que se pueden desarrollar sobre Salud Mental enfocado desde el nivel de las competencias locales -. Además se puede recabar la colaboración de los sectores académicos, profesionales y sociales que estén a disposición.

Por todo lo anterior expuesto, proponemos que se tome el siguiente Acuerdo:

**ACUERDO**

Realizar un Plan Municipal de Salud Mental con el fin de reducir el impacto de

biztanleengan duten inpaktua murrizteko eta osasun mentalaren arloan prebentzioa eta zaintza komunitarioa garatzen laguntzeko, eskura dituen udal eskumenen bidez.

los determinantes sociales en la población y que colabore con el desarrollo de la prevención y el cuidado comunitario en salud mental a través de las competencias municipales de las que dispone.

**GAI-ZERRENDATIK KANPO**

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, eta aurretik urgentziazko aitorpena eginda, aho batez berretsia, honako gai hauek aztertu dira:

**A) PSE-EE (PSOE) eta EH bildu udal tadeek aurkeztutako mozio alternatiboa Osasun Mentalaren inguruko Udal Planari buruz Elkarrekin Eibar Podemos/Ezker Anitza-IU Equo Berdeak taldeak aurkeztu duenaren aurrean.**

BOZKETAREN EMAITZA: ONARTUA.

ALDEKO BOTOAK: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (4).
KONTRAKO BOTOAK: (0).
ABSTENTZIOAK: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

**FUERA DEL ORDEN DEL DÍA**

De acuerdo con lo previsto en el artículo 82.3 en relación con el artículo 138 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales y previa declaración de urgencia ratificada por unanimidad, se pasan a tratar los siguientes asuntos:

**A) Moción alternativa presentada por los grupos municipales PSE-EE (PSOE) y por EH Bildu a la presentada por el grupo municipal Elkarrekin Eibar-Podemos/Esker Anitza – IU/ Equo Berdeak sobre Plan de Salud Mental Municipal.**

RESULTADO DE LA VOTACIÓN: APROBADA.

VOTOS A FAVOR: 13 - PSE-EE (PSOE) (9), EH Bildu (4).
VOTOS EN CONTRA: (0).
ABSTENCIONES: 7 - Eibarko EAJ-PNV (6), Elkarrekin Eibar-Podemos (1).

Behean sinatzen dugun taldeok erdibideko mozio hau aurkezten dugu udalerriko osasun mentalari buruz.

Eibarko Udal Osoko Bilkurak hauxe erabakitzen du:

Eskatzea Osakidetzari osasun mentalaren arreta-zerbitzua giza baliabideekin eta baliabide ekonomikoekin indartzeko eta programa berriak bultzatzeko. Eibarko Udalak bere eskumenen baitan, Osakidetzarekin lankidetzan eta haren ikuskaritzapean, programa horiek osatuko ditu, eibartarren osasun mentala eta ongizate emozionala hobetzeko, bereziki hiriko hainbat eremu/auzotan, zeinetan, Osakidetzak eman diezazkigukeen datuen arabera, bi erakundeok programa horiek gauzatzeko beharra ikusten dugun”.

Los grupos abajo firmantes presentan la siguiente moción transaccional relativa a la salud mental del municipio

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar acuerda:

Solicitar a Osakidetza que refuerce con recursos humanos y económicos la atención a la salud mental e impulse nuevos programas, que dentro de las competencias municipales, en colaboración con Osakidetza y bajo su supervisión, el Ayuntamiento de Eibar complementará a fin de mejorar la salud mental y el bienestar emocional de los/as eibarreses/as en las zonas/barrios de la ciudad en los que, en atención a los datos que Osakidetza pueda facilitarnos, ambas entidades coincidamos en la necesidad de llevar dichos programas a cabo”.

**8. Galderak eta erreguak.**

**8. Ruegos y Preguntas.**

Eta, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoela, eta gaueko zortziak eta bostak izanik, Alkate-Udalburu jaunak amaiera eman dio Osoko Bilkurari, nik, Idazkari Orokorra modura, horren fede emanez.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas cinco minutos, el Sr. Alcalde-Presidente levanta la sesión, de todo lo cual yo, el Secretario General, doy fe.

O.I. / Vº Bº

ALKATE UDALBURUA/

| EL ALCALDE-PRESIDENTE, | IDAZKARIA/ EL SECRETARIO |
| --- | --- |
| Jon Iraola Iriondo | Juan Agustín Villafranca Bellido |